


Euskal AEko BPG % 1,8 igo da 2024ko hirugarren hiruhilekoan, eta enplegua % 1,6

Urteko bigarren hiruhilekoaren aldean, BPG % 0,5 igo da eta enplegua % 0,3

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) % 0,5 egin du gora hiruhileko artean 2024ko hirugarren hiruhilekoan, urte arteko % 1,8ko hazkundearen ondoren. Enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuen terminoetan neurtuta, % 0,3 hazi da 2024ko hirugarren hiruhilekoan, urteko bigarren hiruhilekoaren aldean. Horrek esan nahi du urte arteko hazkundea % 1,6koa izan dela, hau da, guztira 15.795 lanpostu garbi gehiago 2023ko hirugarren hiruhilekoan baino.



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Estimazio horiek Eustaten urriaren 21eko *Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen Aurrerapenean* lortutako BPGren zenbatespenak hobetu dituzte, hamarren batean hiruhileko arteko hazkundea eta bitan urte artekoa. Enpleguari dagokionez, aldiz, aurrerapen hori egiteko unean eskura zegoen koiunturazko informaziotik lortutako zenbatespenak berretsi dira.

Euskal AEko BPGren hirugarren hiruhilekoko urte arteko hazkunde zenbatetsia (% 1,8) Euroguneko ekonomiarako (% 0,9) eta Europar Batasun osorako (% 1,0) egindako azken zenbatespenaren gainetik dago. Urriaren 30eko *Espainiako hiruhilekoko Kontabilitate Nazionalaren Aurrerapenak* urte arteko % 3,4ko hazkundea zenbatetsi zuen Estatu osoan.

Eskaintzaren ikuspegitik, balio erantsiaren bilakaera positiboa izan da urte artean (2024ko hirugarren hiruhilekoa, 2023ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta) sektore ekonomiko guztietan, lehen sektorean izan ezik.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2024/III

	2022	2023	2023		2024		
			III	IV	I	II	III
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	2.2	16.0	14.4	10.3	6.5	2.8	-1.3
Industria eta energia	3.9	1.8	1.7	2.0	1.5	0.5	0.7
Manufaktura-industria	4.5	0.2	-0.2	0.4	0.8	0.4	0.5
Eraikuntza	5.8	2.6	2.3	1.8	1.7	1.1	1.5
Zerbitzuak	6.7	3.0	2.7	2.3	2.5	2.3	2.2
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	12.6	1.1	0.3	0.1	0.8	1.1	1.5
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	3.0	0.9	0.5	1.5	2.9	2.8	2.6
-Gainerako zerbitzuak	5.0	5.4	5.6	4.2	3.4	2.7	2.4
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	5.9	2.8	2.6	2.3	2.2	1.8	1.8
-Produktuen gaineko zerga garbiak	3.4	1.7	2.0	2.2	2.2	2.1	1.8
BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan	5.7	2.7	2.5	2.3	2.2	1.8	1.8

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2024ko Abenduaren 5a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Lehen sektorean, balio erantsia % 1,3 jaitsi da, balio errealetan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, eta % 2,3 aurreko hiruhilekoaren aldean.

Industriaren sektorean, balio erantsia % 0,7 igo da urte artean, eta manufaktura-industrian % 0,5. 2024ko bigarren hiruhilekoaren aldean, industria oro har % 0,9 hazi da eta manufaktura-industria % 0,7.

Eraikuntzaren sektoreak, 2024ko hirugarren hiruhilekoan, balio erantsiaren urte arteko gehikuntza izan du, balio errealetan % 1,5, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,9 igo ondoren.

Zerbitzuen sektorearen jarduera orokorra % 2,2 hazi da 2023ko hiruhileko beraren aldean, hau da, balio erantsia % 0,3 igo da aurreko hiruhilekoaren aldean.

Zerbitzuen portaera positiboa izan da azken hiruhileko honetan hiru adar bereizietan. **Merkataritza, ostalaritza eta garraioa** adarrean balio erantsia % 1,5 igo da aurreko urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,3 igo ondoren. Urte arteko hazkundea nabariagoa izan da **Gainerako zerbitzuak** adarrean (higiezinen arloko jarduerak, jarduera profesionalak, zientifikoak, teknikoak, finantzarioak eta aseguruetakoak barne), % 2,4ko hazkunde-tasarekin urte arteko terminoetan; aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkundea ere % 0,3koa izan da.

Administrazio publiko, hezkuntza, osasun eta gizarte-zerbitzuen adarrean, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,2 igo ondoren, balio erantsiaren hazkundea, 2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, % 2,6an kokatu da.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2024/III

	2023		2024		
	III	IV	I	II	III
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	1,7	-0,8	1,2	0,7	-2,3
Industria eta energia	0,7	0,6	-0,1	-0,7	0,9
Manufaktura-industria	0,7	0,8	0,1	-1,0	0,7
Eraikuntza	0,5	0,3	0,4	-0,1	0,9
Zerbitzuak	0,4	0,4	0,9	0,5	0,3
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,0	0,1	0,5	0,5	0,3
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	0,4	0,9	1,2	0,3	0,2
-Gainerako zerbitzuak	0,7	0,4	0,9	0,7	0,3
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	0,5	0,4	0,6	0,2	0,5
-Produktuen gaineko zerga garbiak	0,6	0,4	0,4	0,6	0,4
BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan	0,5	0,4	0,6	0,3	0,5

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2024ko Abenduaren 5a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Sektore-agregatuen urte arteko joerak Euskal AEko **Balio Erantsian** % 1,8ko hazkundera eragin du 2024ko hirugarren hiruhilekoan, eta urteko bigarren hiruhilekoan ikusitakoa baino % 0,5 handiagoa izan da.

Eskariaren aldetik, urte arteko hazkunderak ere orokorrak izan dira. Etxeetako azken kontsumoko gastuak eta ISFLSHk (**Kontsumo pribatua**) % 1,8ko urte arteko hazkundera izan dute, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,3 igo ondoren.

Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua (**Kontsumo publikoa**) % 2,2 igo da 2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, eta aurreko hiruhilekorako zenbatetsitakoa baino % 0,4 handiagoa da.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2024/III

	2022	2023	2023		2024		
			III	IV	I	II	III
Gastua azken kontsumoan	6,7	1,7	1,4	1,8	2,0	1,9	1,9
Familien eta EZMAEDE-en azken kontsumo gastua	7,8	1,9	1,5	1,8	2,0	1,9	1,8
Herri administrazioen azken kontsumo gastua	3,1	1,3	1,1	1,5	2,2	2,1	2,2
Kapitalaren osaketa gordina	8,7	1,8	1,7	2,0	2,1	1,6	2,0
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	14,4	3,1	2,6	3,1	2,2	1,7	2,3
Gainerako Kapitalaren Eraketa Gordina	5,3	1,0	1,1	1,3	2,0	1,5	1,9
Barne-eskaria	7,2	1,8	1,5	1,8	2,1	1,8	2,0
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak	13,7	1,0	0,3	-1,6	-3,4	2,1	2,0
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak	15,9	-0,2	-0,9	-2,1	-3,6	2,1	2,3
BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan	5,7	2,7	2,5	2,3	2,2	1,8	1,8

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2024ko Abenduaren 5a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Kontsumo publikoaren eta pribatuaren bilakaera bateratuaren ondorioz, **Azken kontsumoko gastua** % 1,9 igo da urte batetik bestera, eta horrek, 2024ko bigarren hiruhilekoaren aldean, % 0,3ko hazkundera dakar.

Kapital eraketa gordinean (Inbertsioa), urte arteko hedapena % 2,0koa izan da, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,6 igo ondoren. **Ekipo-ondasunetan** egindako inbertsioa % 2,3 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean; hiruhileko artean % 0,9.

Kapitalaren eraketa gordinaren gainerakoan, eraikuntzaren bilakaerari lotuago, urte arteko hazkundera % 1,9an kokatu da, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,4ko igoera zenbatetsi ondoren.

Barne-eskaria, azken kontsumoko gastuak eta kapital-eraketa gordinak osatua, % 2,0ko urte arteko hazkundera izan du urteko bigarren hiruhilekoan. Hazkunde hori BPGd-rako zenbatetsitakoaren gainetik dago (% 1,8); beraz, **kanpo-sektorearen** ekarpena negatiboa izan da urteko hirugarren hiruhilekoan. Ondasun eta zerbitzuen **esportazioak** % 2,0 hazi dira urte artean, inportazioak baino indar txikiagoarekin, aurreko urteko hirugarren hiruhilekoan baino % 2,3 handiagoak izan baitira. **Kanpo-saldoak**, beraz, eragin negatiboa izan du Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia osoaren urte arteko bilakaeran.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2024/III

	2023		2024		
	III	IV	I	II	III
Gastua azken kontsumoan	0,4	0,7	0,6	0,3	0,3
Familien eta EZMAEDE-en azken kontsumo gastua	0,4	0,8	0,5	0,3	0,3
Herri administrazioen azken kontsumo gastua	0,3	0,5	0,9	0,3	0,4
Kapitalaren osaketa gordina	0,1	0,7	0,7	0,0	0,6
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	0,4	0,5	-0,1	0,9	0,9
Gainerako Kapitalaren Eraketa Gordina	0,0	0,9	1,2	-0,5	0,4
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak	-0,5	-1,1	-1,3	5,1	-0,5
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak	-0,8	-0,7	-1,3	5,0	-0,6
BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan	0,5	0,4	0,6	0,3	0,5

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2024ko Abenduaren 5a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Enplegu-mailei dagokienez (**lanaldi osoko lanpostu baliokideetan** neurtuta), enplegu osoa % 1,6 hazi da 2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,3 igo ondoren.

Lehen sektoreak % 1,5eko jaitsiera izan du enpleguan 2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, hiruhileko arteko % 1,4ko jaitsierarekin. Industrian, lanpostuen urte arteko sorrera % 0,8koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino % 0,1 txikiagoa. Eraikuntzan enpleguaren bilakaera positiboa izan da, bai urte artean (% 0,2ko igoera), bai hiruhileko artean (% 0,5eko igoera). Azkenik, zerbitzuen sektorean, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua % 2,0 igo da urte artean, hiruhileko artean % 0,4 igo ondoren.

BPGk lurralde historikoetan duen bilakaerari dagokionez, 2024ko hirugarren hiruhilekoan Bizkaiak urte arteko % 1,6ko hazkundera izan du, Arabak % 1,8koa eta Gipuzkoak % 1,9koa. Aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkundera % 0,4koa izan da Bizkaian, eta % 0,5koa Araban eta Gipuzkoan.

Informazio-oharra

Eustatek oinarri-aldaketa bat egin du (2022. oinarria), Euskal AEko 2022. urteko Kontu Ekonomikoen hedapenarekin bat datorrena (behin betiko zenbatespenak), Eurostatek ezarritako ezohiko berrikuspenen Europako politikari jarraituz. Politika horrek mugarri hori ezartzen du 2024. urterako aurreikusitako Kontabilitate Nazionalaren hedapen guztietarako. Berrikuspen horrek Eustaten Datu Bankuan eskuragarri dauden serie guztiak berriz zenbatestea dakar.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62